izan ez balu. Jarraian esan du Katalunian Mikel Icetari entzun ziola eta atzo Alderdi Sozialistari Parlamentuko debatean eta, ustez, tranpa puntu bat badu; izan ere, elkarrizketak egingo ditugu, elkarrizketatzea da bidea... esaten dute baina eurek jartzen dizkiote mugak elkarrizketa horri. Elkarrizketa puntu bateraino, hortik aurrera ez. Gustatzen zaien elkarrizketa mota onargarria da, gustuko ez badute, orduan ez da onargarria. Ondorio izan daitezkeen autogobernua nahiz Estatutuaren erreforma, herritarrek bozkatu ahal izango dituzte baina, bakar-bakarrik gustuko badituzte; hortik aurrera, ez dago onartzerik. Parametro horien gainetik jartzen dute legezkotasuna, legezkotasuna gora eta behera. Bere buruari galdetzen dio zer nolako iritzia duen Alderdi Sozialistak munduko beste sezesio prozesuen inguruan, munduko beste erreferendum prozesuen inguruan, hala nola, Eskozia eta Quebec. Halaber, zer iritzi duten Hagako Nazioarteko Auzitegiari buruz, eurentzat legitimitaterik ba ote duen eta gauza bera NBEren kasuan. Hagako Nazioarteko Auzitegiak, 2010eko uztailaren 22an, garai bateko Jugoslavia edo Kosovoaren gainean egindako adierazpen batean, zera zioen: “Aitortzen dugu Nazioarteko Zuzenbidean ez dagoela inolako araurik aldebakarreko independentzia aldarrikapenak debekatzen dituenik. Aitortzen dugu estatu baten legezkotasun konstituzionalaren eta borondate demokratikoaren artean kontraesana dagoenean, bigarren hori nagusitzen dela eta gizarte demokratiko batean, diktaduran ez bezala, ez dela legea herritarren borondatea erabakitzen duena, baizik eta, borondate hori dela indarrean dagoen legeria aldatzen duena, beharrezkotzat jotzen badu”. Legezkotasunaz ari garenean, herri adierazpenaz ari gara; legezkotasuna ez da herri adierazpenerako tokirik ez duen kartzelaren bat. Alderdi Sozialistak eta PPk defendatzen duten legezkotasuna da katalanei euren etorkizuna erabakitzea baimentzen ez dien

sería posible sin la defensa de una sociedad civil bien organizada. Continúa manifestando que escuchó a Mikel Iceta en Cataluña y ayer al Partido Socialista en el debate del Parlamento y cree que tiene cierta trampa, lo que se dice es vamos a dialogar, el camino es el diálogo... pero ellos establecen los límites a ese diálogo. El diálogo hasta un punto determinado, a partir de ahí no. El diálogo que les gusta es aceptable, si no les gusta ya no es aceptable. El autogobierno que pueda resultar así como la reforma del Estatuto pueden someterlo a referéndum de la ciudadanía, pero sólo si les gusta, a partir de ahí ya no es aceptable. Sobre estos parámetros además ponen la legalidad, legalidad para arriba y para abajo. Se pregunta que opinión tiene el Partido Socialista sobre otros procesos de secesión en el mundo, o sobre otros procesos de referendum en el mundo, Escocia, Quebec o incluso que opinión les merece un Tribunal como el de La Haya, si le dan legitimidad o no, lo mismo con la ONU. Una declaración del Tribunal de La Haya en el caso de la antigua Yugoslavia o Kosovo, decía lo siguiente el 22 julio de 2010: “Declaramos que no existe en Derecho Internacional ninguna norma que prohíba las declaraciones unilaterales de independencia. Declaramos que cuando hay una contradicción entre la legalidad constitucional de un estado y la voluntad democrática prevalece esta segunda y declaramos que en una sociedad democrática a diferencia de una dictadura no es la ley la que que determina la voluntad de los ciudadanos sino que esta es la que modifica cuando cree necesario la legalidad vigente.” Cuando se habla de legalidad se está hablando de expresión popular, no se habla de la legalidad como una especie de cárcel donde la expresión popular no tiene cabida. La legalidad que se defiende por parte del Partido Socialista y Partido Popular es una legalidad que no permite a los catalanes decidir su



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

legezkotasuna eta, horrela, euskaldunei ere ukatu egiten zaie etorkizuna erabakitzea. Gizarte honen zati bat ordezkatzen dutenek ukatu egiten diete euren boto-emaileei etorkizuna erabakitzea. Alderdi Sozialistaren azkena izan da estatu plurinazionala aipatzea, nazioen nazioa. Bere buruari galdetzen dio zer den hori Alderdi Sozialistarentzat; izan ere, bai berak, bai nazioarteko zuzenbideak ulertzen dute nazio bat existitzen bada, eskubidedun dela eta, horrenbestez, autodeterminazioaren eskubidedun da. Gainerakoa, folklore hutsa da. Orain, gainera, badirudi irtenbidea estatu federala dela; orain, Kataluniarekin arazo hori dutenean. Badirudi Katalunian bi milioi herritarrez osatutako manifestazioak egin behar direla lau urtetik behin, batzuk mahai gainean eskaintza politikoak jartzen hasteko. Ez dago elkarrizketarik Estatuko instituzioekin, horiek arazo bat dagoela uste dutenean izan ezik. Ibarretxek bere proposamena Madrilen defendatu zuenean ere ez zen elkarrizketarik egon. Pentsatu zuten gai hori kudeatu ahal izango zutela inolako proposamenik egin gabe. Katalunian gertatzen ari dena kudeaezina da une honetan eta estatu federala bezalako proposamenak agertzen ari dira. Nolako autonomia izan dezake Kataluniak? Zein gaitasun eduki dezake Kataluniako herriak erabakiak hartzeko? Hor dago gakoa, ez nazioen nazioa bezalako nomenklaturak erabiltzen.... Zehaztu behar da zer eskaintzen zaion Kataluniari nahiz beste toki batzuei. Legea herri borondatearen adierazpena da, herri borondatearen adierazpena ez den legea diktadura da eta demokrazia, berriz, herri borondatearen adierazpena. Katalunian badago legea eta Kataluniako Parlamentuak ere legeak eratzen ditu eta hori guztia beste gorteek egin dezaketena bezain bidezkoa da. Bi ezin dira bat etorri, batek nahi ez badu. Ez da borondaterik erakutsiko ez alde batetik, ez bestetik ere. Lortu nahi dena da zati bat, borondatearen kontra ere, proiektu

futuro y de esta manera se niega también que los vascos puedan decidir su futuro. Aquellos que representan a una parte de esta sociedad, niegan a sus propios votantes que puedan decidir su futuro. Lo último del Partido Socialista es la mención de un Estado plurinacional, la nación de naciones que se pregunta también exactamente, qué es para el Partido Socialista, ya que entiende y también el Derecho Internacional, que si una nación existe es sujeto de derechos y como tal también es sujeto de derecho a la autodeterminación. Lo demás es puro folclore. Ahora resulta también, que la solución es el Estado federal, ahora que tienen este problema con Cataluña. Parece que en Cataluña tiene que haber movilizaciones de de dos millones de habitantes cada cuatro años para que ahora algunos empiecen a poner ofertas políticas encima de la mesa. No hay diálogo con las Instituciones del Estado salvo que estas entiendan que existe un problema. Tampoco hubo diálogo cuando Ibarretxe defendió su propuesta en Madrid. Pensaron que podrían gestionar el asunto sin elaborar ninguna propuesta. Lo que está ocurriendo en Cataluña a estas alturas es ingestionable y están empezando a aparecer ofertas como la del estado federal. ¿Que autonomía puede llegar a tener Cataluña?. ¿Qué capacidad de decisión puede llegar a tener el pueblo Catalán?. Esta es la clave, no nomenclaturas como nación de naciones...Lo que hay que determinar es lo que se ofrece tanto para Cataluña como para otros lugares. La ley es la expresión de la voluntad popular, la ley que no es expresión de la voluntad popular es dictadura, la que es la expresión de la voluntad popular es democracia. En Cataluña hay ley y el Parlamento Catalán también elabora leyes y es tan legítimo como las leyes que puedan elaborar otras cortes. Dos no pueden estar si uno no quiere, no va a haber voluntad por ninguna de las partes.Y lo que se quiere es que una parte incluso en contra de su



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

bati lotzea eta hori ezinezkoa da; utzi erabakitzen herritarrei proiektua gogoko duten ala ez. Denbora katalanen alde dago, edo erabakitzeko eskubidea defendatzen dutenen alde. Uste du Alderdi Sozialistaren diskurtsoa anakronikoa geratzen ari dela eta, errespeto osoz, uste du XXI mendea izango dela Kataluniako, Euskal Herriko, Eskoziako.... herri borondateak adierazi eta aitortuak izango diren mendea.

voluntad este unida a un proyecto y esto no puede ser, dejen a los ciudadanos y ciudadanas que decidan si el proyecto les gusta o no. El tiempo corre a favor de los catalanes o de los que defienden el derecho a decidir, cree que el Partido Socialista se está quedando anacrónico en su discurso y lo dice con todos los respetos, cree que el siglo XXI va ser el siglo en el que las voluntades populares de Cataluña, Euskal Herria, Escocia...se van a expresar y van a ser reconocidas.

* Ruiz jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos), debatea berbideratzeko asmoz adierazi du nazioarteko zuzenbideaz hitz egiten ari direla ez dutelako Bildu, Errenteria IrabaziZ eta EAJ/PNVren proposamenaren puntu bat ere tratatu. Talde guztiak ados daude nazioarteko erlazioetan ematen den zurikeriarekin; beti izan da horrela eta askotan, interesa dagoenean, zeharkako irakurketak egiten dira. Alkateak Jugoslavia bezalako kasua aipatu du eta, aldeak alde, garbiketa etnikoaz hitz egiten da Jugoslavian eta hori, Kataluniatik oso urrun dago, Kataluniak bere instituzio propioak baititu. Jugoslavian herritarrak suntsitzen ari dira eta Katalunian ez. Behar-beharrezkoa da debatearen erdian jartzea elkarrizketaren bilaketa. Kataluniako independentziaren emaitza ezezkoa balitz, Junts pel si eta CUPek adierazi dute hauteskunde autonomikoak egin beharko liratekeela. Arazoa politikoa da, independentzia ala orain arte bezala jarraitzea. Alderdi Sozialistaren asmoa gauzak baretzea da, hilabete honetan debate politikoa oso trinko dago. Kataluniako instituzioek eta Carles Puigdmont ordezkari nagusiak ezin dute jendea harengatu Kataluniako Asanblada Nazionalaren mitinetan. Alkateak derrigortzen ari dira euren aldeko ala aurkako jarrera agerian uztera. Generalitateak baditu hautesontziak ipintzeko lokalak. Argi geratu da Ada Colau alkatearen kasuan, hasieran ez zegoen

* Interviene el Sr. Ruiz (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) manifestando que un poco por reconducir el debate puesto que de la declaración presentada por Bildu, Errenteria IrabaziZ y EAJ/PNV ni se han tratado los puntos, han acabado hablando del Derecho Internacional. Todos los Grupos están de acuerdo en la hipocresía que hay siempre en las relaciones internacionales, siempre ha sido así y muchas veces se hacen unas lecturas sesgadas cuando interesa. Ha mencionado el Sr. Alcalde un caso como el de Yugoslavia, salvando las distancias, en Yugoslavia se está hablando de limpiezas étnicas, dista mucho con lo que está ocurriendo en Cataluña que tiene sus propias instituciones. En Yugoslavia están arrasando a la población, en Cataluña no. Es necesario centrar el debate en pro de acercase a un diálogo. Si saliera que no a la independencia en Cataluña, Junts pel si y la CUP han manifestado que debería haber elecciones autonómicas, o independencia o seguir como hasta ahora. El problema es político independencia o nada. El Partido Socialista lo que pretende es calmar las cosas, en este mes el debate político está muy cargado. Las Instituciones catalanas y el primer representante Carles Puigdmont no puede estar arengando a las masas en mítines de la Asamblea Nacional Catalana. Esta forzando a los alcaldes y alcaldesas para que quede constancia de quien está

ados eta, itxuraz, hitzarmenen bat egin du Generalitateko presidentearekin lokalak zabaltzeko. Galdetu nahi du zertarako balio duen prozesu horrek, zertarako balio duen Udalbatzara ekarritako Adierazpen instituzional horrek. Argazkian ateratzeko? Errenteria aurka dagoela esateko? Konponduko al du Kataluniako arazoa? Ez du uste bihar nazioarteko prentsan agertuko denik, ez The Guardian egunkarian, ezta TV3ko portada izango denik ere, udal honek jarrera hartu duela. Harengak egiten zaizkio legezkotasunari, gehiengoari. Oso aipamen bibliografiko onak egiten direla aitortu behar dio Gracia jaunari baina, politologoak ere aipatu ahal dira edo Alexis de Tocqueville bezalako soziologoak. Horrek "Amerikako Demokrazia" liburuan esaten zuen demokraziak edo gobernuek beti gainditu dezaketela neurria herriaren eta herriarentzako boterea argudiatuz. Horretarako behar da araudi bat, legezkotasun bat; legezkotasunik gabe ezin direlako gehiengo horiek arautu. Guztiok ikusi dugu, baita lotsatu ere, Kataluniako Parlamentuan gertatutakoa eta Kataluniako legeriaren gainetik pasa direla, Presidenteari eskatu zitzaionean Estatutua Bermatzeko Kontseiluaren irizpenak irakurtzeko, ukatu egin zuen, ez zion hitza eman Parlamenteko Idazkariari. Politikan, funtsa ez ezik, formak ere garrantzitsuak dira. Kasu honetan, ez dira formak gorde eta egokia ez den legezkotasunetik abiatzen dira. Estatuaren zati bat banandu daitekeela defendatzen dute, hautetsien %51a baliatuta, baina ez botoak baliatuta. Gogora ekarri nahi du Antonio Bañosek, Unidad Popular delako parlamentuko taldeko presidente ohiak, esan zuenean, tamalez, Kataluniako "proces"-ak ezin zuela aurrera egin, hautetsien gehiengoa alde izan arren, ez zuelako alde boto gehienak eta, horrenbestez, Kataluniako herritarren gehiengoa ez zelako lurraldearen sezesioaren aldekoa. Iruditzen zaio erabateko eskua ematen ari direla legezkotasuna horrelakoa dela

a favor y quien no. La Generalitat tiene locales donde poner las urnas. Se ha visto claro en el caso de la Alcaldesa Ada Colau, al principio no estaba de acuerdo y al parecer ha llegado a un pacto con el President de la Generalitat para abrir los locales. Pregunta para qué sirve todo este proceso, para qué sirve esta Declaración Institucional que se trae al Pleno. ¿Para salir en la foto? ¿Para decir que Errenteria se posiciona en contra?. ¿Va a solucionar el problema de Cataluña?. No cree que vaya a salir mañana en la prensa internacional ni en The Guardian que este Ayuntamiento se ha posicionado, ni va a abrir las portadas en TV3. Se hacen arengas a una legitimidad, a una mayoría. Se hacen unas citas bibliográficas muy buenas, tiene que reconocérselo al Sr. Gracia pero también se pueden citar politólogos, también sociólogos como Alexis de Tocqueville y en su libro "La democracia en América" decia que la democracia o los gobiernos pueden exceder siempre alegando al poder del pueblo y para el pueblo, para eso hace falta una reglamentación, una legalidad porque sin la legalidad no se puede regular esas mayorías. Todos hemos visto y nos hemos abochornado de lo que ocurrió en el Parlament de Calaluña, y cómo se lo han saltado todo incluída la propia legalidad catalana, cuando a la Presidenta se le solicitó que leyera los dictámenes del Consell de Garantías Estatutarias, negó, no dejo la palabra al Secretario del Parlament. En política no sólo es importante el fondo, también las formas. En este caso no se han cumplido las formas y parten de una legitimidad que no es la que corresponde. Están defendiendo que es posible separar una parte de un estado con el 51% de los escaños pero no de los votos. Quiere recordar cuando Antonio Baños ex-presidente del Grupo parlamentario de la Candidatura de Unidad Popular dijo que lamentablemente el procés catalán no podía seguir adelante porque no contaba con la mayoría de

esatean. Bere taldeak ez du esaten independentziaz eztabaidatu ezin denik, baina instituzioak ez derrigortzeko eskatzen dute, batzuek egin duten bezala, guztiek neurria gaindi dezaketelako. Hori ez da politika, hori Goyak bere margolanean egin zuena da, makilakadaka aritu ea nor geratzen den. Mozioaren 2. puntuari dagokionez, errepikatu nahi du lotsagarria izan dela Parlamenten gertatutakoa, une horretan bertan urratu ziren askatasun eta eskubideak eta, hortik aurrera, gainerako guztia. Askatasun mugatzaile bakarra Espainiako Gobernua dela dio eta bere taldea ez dago ados ikuspegi horrekin, ez premiarekin, ezta adierazpen honekin ere. Ez dituzte askatasunak batzen, ez irtenbideak proposatzen eta ez diote gizarte kohesioari laguntzarik ematen, ezta arazoaren funtsari ekiten dion elkarrizketa zintzo eta benetakoari ere. Bere alderdiak egindako proposamena gustuko izan ala ez, proposamen hori egiteko eskubide osoa dute. Horregatik eta Errenteria arazo horren zati bihurtzean parte izan nahi ez dutelako, adierazi nahi dute Alderdi Sozialistak ez duela bozkatuko.

los votos pero sí de los escaños y por tanto no había una mayoría de la población catalana que estuviera de acuerdo con la secesión del territorio. Le da la sensación de que se está dando carta blanca diciendo que la legitimidad es así. Su Grupo no dice que no se pueda debatir la independencia, solicitan que no se fuerce a las instituciones, todos se pueden sobrepasar porque algunos ya lo han hecho. Esto no es política, esto es como lo que hizo Goya con su cuadro, a garrotazo limpio, a ver quien queda. En cuanto al punto 2 de la moción, reitera que ha sido bochornoso lo que ha ocurrido en el Parlament, en ese momento ya se vulneraron libertades y derechos, de ahí en adelante todo. Sólo se hace referencia al gobierno de España como el que coarta las libertades, su Grupo no está de acuerdo con este planteamiento, ni con la urgencia ni con esta declaración. Ni suman voluntades, ni proponen soluciones, no ayudan a la cohesión social ni a mantener un diálogo sincero y honesto que vaya al fondo de la cuestión, independientemente de que les guste o no la propuesta planteada por su Partido, en todo caso tienen todo el derecho a proponerla, por este motivo y porque no quieren ser partícipes de posicionar a Errenteria como parte del problema comunican que el Grupo Socialista no participará en la votación.

* Alkateak (Orereta/Errenteriako EHBildu) esan du zerbait argitu nahiko lukeela: inork ez du Yugoslaviaz hitz egin, Hagako Nazioarteko Auzitegiak emandako epaiaz baizik. Kasu asko daude jurisprudentzian, baina horrek ez du esan nahi kasuak berdin-berdinak direnik, doktrina dagoela baino. Hori Auzitegi Gorenean nahiz Konstituzio Auzitegian ematen da. Jurisprudentziak, eskubide bat aplikatzeari buruzko doktrina dagoela zehazten du. Ruiz jaunak esan du ez duela ulertzen eta erantzuna oso erraza da: kataluniar, euskaldun, eskoziarren, irlandarren….

*Interviene el Sr. Alcalde (Orereta/Errenteriako EHBildu) le gustaría aclarar algo, nadie ha hablado de Yugoslavia, se ha hablado de una sentencia del Tribunal de la Haya. Hay muchos casos en la jurisprudencia pero no significa que los casos son idénticos, significa que existe una doctrina. Esto existe en el Tribunal Supremo o en el Constitucional. La Jurisprudencia determina que existe una doctrina de aplicación de un derecho. El Sr. Ruiz dice que no entiende y la respuesta es bien sencilla, que las voluntades populares como las de los catalanes o los



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

bezalako herrien borondateak garatu ahal izan daitezen. Oso erraza da eta, Kataluniako Parlamentean eztabaidatzeak mindu egiten badu, defenda ezazue legezko erreferenduma, ahalik eta aukera gehienekin, ez batzuei soilik interesatzen zaienekin. Ezinezkoa da arazoei heltzea prozedura bitartez; agian, ez zen egokiena izan, baina bazegoen mehatxurik gabe normalizatzea, Konstituzio Auzitegian errekurtsorik jarri gabe. Estatuarekin hitzartutako erreferenduma, katalanek nahi zuten aukera bozkatu ahal izango zutena, independentzia barne. Nahiz eta Alderdi Sozialistari ez gustatu, hori da demokrazia eta demokrazia batean, batzuetan, bati gustatzen ez zaizkion gauzak egin behar dira, gehiengoak irtenbidea dela pentsatzen duenean. Batzuek onartzen dute gehiengoak erabakitzea, beste batzuk, ordea, ez dute jakin ere egin nahi, statu quo-a interesatzen ez zaielako; hori da demokrazia onartzea ala ez onartzea. Berriro dio hori irtenbidea erraza dela. Defenda ezazue aukera guztiak dituen erreferenduma. Udal gisa, halako elkartasuna adierazi behar dutelakoan dago; izan ere, une honetan, beren-beregi, salbuespen egoera dago eta horretan datza arazoaren larritasuna eta horrexegatik aurkitzen dira gaur udalbatza honetan. Espainiako estatu demokratikoaren erabateko inboluzioa dago (noizbait demokratikoa izan bada). Frankismoaren oinordekoek mekanismo eta modu berak erabiltzen dituzte pentsaera bat inposatzeko, 36an egin bezala. Orduan, Alderdi Sozialista beste aldean egon zen, orain berriro egin nahi dute eta arazoa da Alderdi Sozialistak estaldura ematen diela, larria iruditzen zaie eta, zintzotasun osoaz esaten du, espero duela egunen batean ikusiko dutela, elkarbizitzarako garrantzitsua delako. Funtsezkoa da errespetatzean pertsonek pentsatzen dutena zein erabakitzen dutena.

vascos o los escoceses, irlandeses...puedan desarrollarse. Es bien sencillo y si molesta el debate en el Parlament de Catalunya, defiendan el referéndum legal con todas las opciones posibles, no sólo las que les interesan a algunos, todas las posibles, incluida la opción de la independencia. El Partido Socialista no permite esta opción, existe una única soberanía y la unidad territorial de España. La pregunta es sencilla y el problema también, cuando se niegan todas las posibilidades, no se puede recurrir a problemas con el procedimiento, igual no era el más adecuado, pero se podía haber normalizado sin amenazas, sin recursos ante el Tribunal Constitucional. Un referéndum pactado con el Estado donde los ciudadanos catalanes pudieran votar la opción que quisieran incluída la independencia, por mucho que al Partido Socialista no le guste, eso es democracia y en democracia a veces hay que hacer cosas que a uno no le gustan, pero la mayoría considera que esa es la solución. Unos aceptan lo que la mayoría pueda decidir mientras que otros no quieren ni saberlo porque el statu quo les interesa, esta es la aceptación o no de la democracia. Insiste en que la solución es sencilla, defiendan el referéndum con todas las opciones. Considera que como Ayuntamiento deben mostrar una cierta solidaridad puesto que lo que hay en este momento es un estado de excepción de facto y esa es la gravedad del problema y por eso están hoy en el Pleno. Hay una absoluta involución del Estado democrático (si es que algún día lo ha sido) español. Los herederos del franquismo vuelven a utilizar sus mecanismos y formas para imponer un pensamiento, lo hicieron en el 36, en ese momento el Partido Socialista estuvo al otro lado, ahora quieren volver a hacerlo y el problema es que el Partido Socialista les está dando cobertura, le parece grave y espera y lo dice con absoluta sinceridad, que algún día puedan verlo puesto que es importante para la convivencia,



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

es fundamental respetar tanto lo que las personas piensan como lo que deciden.

* Ruiz jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) adierazi du, berak ulertutakoaren arabera, gehiengoaren borondateak gai baten gainean legeak eman nahiko balitu, egin ahal izango lukeela; beraz, Errenteriako herritarrek zerbait aurrera eraman nahi izango balute, zuk, Alkate gisa, erdiko bidetik jo ahalko zenuke, txosten juridikoak kontuan hartu gabe, herriaren borondatea delako. Alderdi Sozialista harritu egiten da bide horretatik jarraitu nahi izatea eta espero du hori ez egitea. Horrela gertatu zen Kataluniako Parlamenten, horrela hasi zen "proces"-a, Carles Puigdemont presidenteak Veneciako Batzordera bidalitako eskutitz batzuekin. Horietan, Espainiako Gobernua eta Generalitatearen arteko bitartekari bat eskatzen zuen, legezko eta hitzartutako erreferenduma aurrera eramateko. Europako Kontseiluaren Batzordeak ebatzi zuen ez zituztela gutxieneko baldintza demokratikoak betetzen horrelako prozesu baterako. Jende guztiak esaten du, baita Generalitatek baliatu dituen organoek ere, baina ez dago hori kontatzeko interesik. Alderdi Sozialistak, 37an, legezkotasuna eta errepublika defendatzen aritu zen eta gaur egun, ere, legezkotasuna eta elkarrizketa defendatzen ari dira; ustez, independentistek defendatzen ez dutena. Erreferendum horretan baiezkoak irabaziz gero, independentzia gauzatuko litzateke eta ezezkoak irabaziko balu, ezer ez. Nola gertuko lirateke? Estatutuarekin, gaur egun bezala? Alderdi Sozialistak dio erreforma ezinbestekoa dela, katalanek bozkatu egin behar dutela. Kataluniako Alderdi Sozialistaren edozein kidek defendatzen du legezkotasun berri baten beharra, guztiak ordezkatuko dituzten bide berriak bilatzeko beharra. Hausnarketa egitera gonbidatu nahi ditu. Alderdi Sozialista ez dago inolako bandoetan, legezkotasuna eta elkarrizketa

*Interviene el Sr. Ruiz (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) manifestando que según entiende, si la voluntad mayoritaria quisiera legislar sobre algún tema podría hacerlo, por tanto si el pueblo de Errenteria quisiera sacar algo adelante usted como Alcalde de Errenteria podría tirar por la vía del medio sin hacer caso a los informes jurídicos porque es la voluntad del pueblo. Al Partido Socialista le extraña que quieran seguir por ese camino, espera que no lo hagan. Así ocurrió en el Parlament de Catalunya, así empezó el procés con unas cartas del President Carles Puigdemont a la Comisión de Venecia, al Consejo Europeo, en la cual apelaba a un intermediario entre el Gobierno de España y la Generalitat para poder llevar a cabo un referéndum legal y pactado. La Comisión del Consejo de Europa estableció que no reunían los requisitos mínimos y que no cumplían las garantías mínimas democráticas para este tipo de proceso. Se lo está diciendo todo el mundo, los propios órganos a los que ha apelado la Generalitat se lo están diciendo pero eso no interesa contarlo. El Partido Socialista estuvo en el 37 defendiendo la legalidad, la república, hoy están también defendiendo la legalidad y el diálogo que cree que los independentistas no están defendiendo. Si en el referéndum sale el sí, saldría la independencia y si sale que no, nada. ¿Cómo se quedarían?. ¿Con el estatuto tal y como están? El Partido Socialista dice que es necesaria una reforma, los catalanes tienen que votar. Cualquier integrante del Partido Socialista de Catalunya defiende que es necesaria una nueva legalidad, buscar cauces en los que todos estén representados. Les invita a la reflexión, el Partido Socialista no está en ningún bando sino defendiendo la legalidad y el diálogo.

defendatzen baizik.

* Collar jaunak (Errenteria IrabaziZ) esan du Ruiz jaunari aipuak hainbeste gustatzen zaizkionez, gogora ekarri nahi diola Hồ Chí Minhek esaten zuena: “idatz ezazu argi, neska-mutilek ulertzeko moduan, baita gazteek eta adinduek ere”. Katalunian duen salbuespeneko egoera baloratzen ari dira eta Alderdi Sozialista “proces”ean zentratzen da. Ez ezazue arreta gunea aldatu. “Gelditu gaitezen” esaten duzunean, arriskua ere badago, Ruiz jaunak esaten du beharrezkoa dela elkarrizketarako espazioak zabaltzea eta horretan saiatzen ari dira, arazo publiko bati, elkarrizketa bidezko erantzuna ematen. Gauza bitxia da “geldi zaitezte” esaten dutenean; izan ere Aragoiko Aldundiko presidenteak, Juan Antonio Sanchez Querok, “geldi zaitezte” esaten du espresuki, elkarrizketarako gune horren gainean. Salbuespeneko neurrien arabera ari gara, nor bere jarreratik abiatuta.

*Interviene el Sr. Collar (Errenteria IrabaziZ) manifestando que ya que le gustan tanto las citas al Sr. Ruiz, le quiere recordar que Hồ Chí Minh decía: “escriba usted claro para que le entiendan los niños y las niñas, los jóvenes y los ancianos”. Están valorando la situación de excepcionalidad en Cataluña, y el Partido Socialista se centra en el procés. No cambien el foco, cuando dice “parémonos”, existe un riesgo. El Sr. Ruiz manifiesta que es necesario abrir espacios de diálogo y es lo que se está intentando, solucionar un problema político a través del diálogo. Resulta curioso cuando dicen “paren”, Juan Antonio Sanchez Quero, Presidente de la Diputación de Aragón, expresamente dice “paren” a ese espacio de conversación. Se está actuando con medidas de excepcionalidad, cada uno desde su posición.

* Ruiz jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) adierazi du ez duela Aragoiko kasua ezagutzen eta ez dakiela zer gertatu den. Artikulua helarazten badiote, irakurriko duela.

*Interviene el Sr. Ruiz (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos), manifiesta que no conoce el caso de Aragón ni sabe lo que ha ocurrido, si le pasan el artículo lo leerá.

* Collar jaunak (Errenteria IrabaziZ) erantzun dio artikulu hori El Pais egunkarian argitaratu dela.

*El Sr. Collar (Errenteria IrabaziZ) le contesta que el artículo se ha publicado en El País.

* Ruiz jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) erantzun du ez duela El Pais solik irakurtzen. Gaineratu du, oker ez badago, Kongresuko Podemos taldeak onartu duela parte hartzea autonomia estatuaren erreformarako proposatu den batzordean eta, ongi etorriak izan daitezela. Gauza bitxia da bi muturretakoak izatea Kataluniako arazoaren zati baten protagonistak, Ciudadanos, Esquerra Republicana eta Bildu, hain zuzen. Gainerakoak, Kongresuaren alde (%90), autonomia estatuaren

*El Sr. Ruiz (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) contesta que no sólo lee El País, continúa diciendo que si no se equivoca el Grupo Parlamentario de Podemos en el congreso ha aceptado sentarse a la Comisión que se ha propuesto de reforma del Estado autonómico y bienvenidos sean. Curiosamente son los dos polos, protagonistas en parte de este problema que existe en Cataluña, Ciudadanos, Esquerra Republicana y Bildu. El resto a favor del Congreso (90%) para sentarse a entablar un diálogo



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

erreformarako elkarrizketatzen hastearen alde.

* Peña andreak (EAJ/PNV) adierazi du harrigarria dela Collar jaunak Ruiz jaunari leporatzea arreta gunea aldatzen ari dela, era bateratuan aurkeztutako mozioa defendatzean, berak Estatuaren Aurrekontu Orokorrak aipatu dituenean; hau da, “Etxean pertza zuloekin eta auzoan eltze konpontzen”. Arazoaren jatorria ez da Kataluniako Parlamentuaren jarduteko modua, askoz lehenagotik dator eta ez du uste horrek inor ezustean harrapatuko duenik. Governa inor engainatu gabe osatu zen, hauteskunde plebiszitario batzuen ondoren eta helburu zehatz batekin. Hasieratik zehaztu da, azaldu da zein zen euren asmoa eta geratu zaien irtenbide bakarrera iritsi dira, ez dago hitz egiterik zurekin hitz egin nahi ez duenarekin. Hori da lehen premisa, bigarrena, berriz, Espainia batuarena, bakarrarena; hori da muga eta ez dago hori aldatzerik. Prozesu osoa baldintzatu duen beste premisa bat da erabakitzeko eskubidea eskatzen dutenekiko errespeturik ez erakustearena. Ez errespetatzeaz gain, umiliatu ere egin da. Noiz hitz egin behar da? Sokaren muturreraino? Milaka lagun kaleratu direnean? Orain arte ez al zegoen hitz egiterik? Kataluniaren arazoa eta zoria, egoera honetan, da babestutako prozesua dela eta oinarritik sortu dena, herritarrengandik, eta botere hori ezin du inork kendu. Seguruenik izango dira, forma aldetik, zuzenak ez direnak baina, hala ere, ezin da herriaren borondate gainetik nagusitu. Hau arazo politikoa da, zuek, Alderdi Popularrak hain zuzen, beste gauza bat bilakatzen ari zaretena eta pena bat da, oraingoan, proposamena onartu ezin izana. Tresna judizialak eta polizialak erabiltzen dira arazo politikoak konpontzeko eta ez dira erabiltzen negoziazioa eta elkarrizketa bezalako tresnak. Orain beranduegi da. Zer negoziatuko da orain? Erabat ados dago Alkateak proposatutakoarekin, “nirea, ala nirea”, horixe da Espainiako Gobernua egiten ari

para la reforma del Estado autonómico.

*Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que llama la atención esto de “consejos vendo para mí no los tengo”, el Sr. Collar achaca al Sr. Ruiz que está desviando el foco de atención cuando él ha sacado a colación los Presupuestos Generales del Estado en una intervención para defender la moción presentada de manera conjunta. El problema no viene por la actuación en el Parlamento Catalán, esto viene de muchísimo antes, no cree que a nadie le pueda coger esto de sorpresa. El Govern fue constituido sin engañar a nadie después de unas plebiscitarias y con un objetivo concreto. Se ha especificado desde el inicio, se ha expuesto cual era la intención que tenían y han llegado a la única vía de salida que les ha quedado, no se puede hablar con alguien que no lo quiere hacer contigo. Esta es la primera premisa, la segunda es la de España unida, única, eso es el techo, eso no se puede tocar. Otra premisa que ha condicionado todo el proceso es el no tener respeto a aquellos que están solicitando el derecho a decidir. No sólo no se ha respetado, se ha humillado. ¿Cúando hay que hablar?. ¿Cúando llega la cuerda al extremo?. ¿Ahora que hay miles y miles de personas en la calle?. ¿Hasta ahora no se podía hablar?. El problema y la suerte de Cataluña en este caso, es que es un proceso que está respaldado y surge de la base, de la ciudadanía, y ese poder no lo puede quitar nadie. Seguramente habrá cuestiones de forma que no sean correctas, pero no se puede prevalecer sobre la voluntad popular. Esto es una cuestión política que ustedes están convirtiendo en otra cosa, en este caso el Partido Popular, es una pena que en esta ocasión no se haya podido aprobar esta propuesta. Se utilizan instrumentos judiciales y policiales para solucionar problemas políticos y no se utilizan instrumentos como los de la negociación y el diálogo. Ahora ya es demasiado tarde. ¿Que se va a



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

dena eta erabateko errespetu falta delakoan dago. Ezin da ahaztu Kataluniako herritarren jarrera eredu bat dela, pazientzia eta gizalegearen eredua. Berriro adierazi nahi du mozioarekiko atxikimendua eta espero du arazoari irtenbidea ematea. Parlamentuan forma aldetik gaindiezina omen den akatsik gertatu izan ez balitz, herritarrei galdetzearen alde egongo al lirateke? Emaitzarekiko izuikara, beldur zentzugabea, erakusten ari dira. Defendatu eta landu ezazue nahi duzuen aukera, betiere, landu behar den tokian.

negociar ahora?. Está completamente de acuerdo con lo que planteaba el Sr. Alcalde " ó lo mío ó lo mío" , esto es lo que está haciendo el Gobierno Español y considera que es una total falta de respeto. No hay que olvidar sino señalar el ejemplo que está dando el pueblo catalán, ejemplo de paciencia y civismo. Reitera su apoyo a la moción y espera que el problema se resuelva. ¿En el supuesto de que en el Parlamento no hubiera habido ningún defecto insalvable de forma tan escandaloso, estarían de acuerdo con que se preguntara a la ciudadanía?. Se trasluce un pavor, un miedo casi irracional al resultado. Defiendan y trabajen la opción que quieran y donde hay que trabajarlo.

* Ruiz jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) erantzun du. Hautetsontziei beldurrik ote dioten? Halako beldurra diete, Alderdi Sozialista hauteskunde primarioak jarri zituela abian (nazioarteko prentsan agertu da, baita El Pais egunkarian ere, Collar jaunari gustatzen zaion bezala). Hautetsontziak jarri egiten dituzte. Baina hautetsontziak ondo legeztatua egon behar du. Legezkotasunetik kanpo jarri nahi izan dira hautetsontziak.

*Contesta el Sr. Ruiz (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos). ¿Que si tienen miedo a las urnas?. Tienen tanto miedo que el Partido Socialista se metió en procesos de primarias (aparece en prensa intenacional, o en El País como le gusta al Sr. Collar), ponen urnas, pero la urna tiene que estar bien legislada, las urnas se han querido poner fuera de la legalidad y esto lleva a la arbitrariedad.

* Alkateak (Orereta/Errenteriako EHBildu) parte hartu du adierazteko ez zaiola erantzunik eman galderari. Amaitu aurretik, eta ahotsa inoiz ez kentzea espero dela aipatu denez, esan behar du hemen ez zaiela inoiz kendu eta, gehienez ere, Alderdi Sozialista bera izango dela bere buruari ahotsa kenduko diona, bozkatzeari uko egiten diotenez, areto honetatik alde egitean.

*Interviene el Sr. Alcalde (Orereta/Errenteriako EHBildu), manifiesta que a la pregunta no se ha contestado, antes de finalizar, como se ha mencionado que se espera que nunca se les quite la voz, tiene que decir que aquí nunca se les ha quitado y en todo caso el que se va a quitar la voz va a ser el propio Partido Socialista cuando abandone la sala puesto que se niegan a votar.

* Bertaratutako herritarren aldetik, Agustín Celigüeta Almazán Errenteriako biztanleak aipamena egin die Alderdi Sozialistako zinegotziak errepublikaren legezkotasunaren gainean egindako adierazpenei;

*Interviene del público Agustín Celigüeta Almazán, vecino de Errenteria, hace referencia a las intervenciones del Concejal del Partido Socialista, cuando hablan del apoyo a la legalidad republicana,



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

izan ere, Casadok ere babesten du. Kataluniaz ez ezik, demokrazia bezalako oinarrizko gauzez ere hitz egiten ari dira eta horrek, askotan, legezkotasunarekin talka egiten du. Hautetsontzi bat ez da suntsipen masiboko arma, botoa eman ahal izateko gizartearen eskura dagoen tresna baizik. Beldurra diete hautetsontziei. 1978an, Espainiako Konstituzioa bozkatzeko hauteskundeak izan ziren eta Euskal Herrian, ezetzak eta abstentzioak nagusitu ziren, baietzaren gainetik. Veneciako aitorpenei buruz hitz egiten da, baina badira konpondu ez diren liskarrak, Txekia-Eslovakia, Serbia-Montenegro, esaterako eta, Quebec edo Eskozia independentzia prozesuak irabazi ez badu ere, horrelako liskarrak aztertu dira. Kontraesan handia dago, alde biko ala alde bakarreko eztabaida, eztabaida kategabea da, ezinezkoa, 78ko Konstituzioak ez duelako inolako garapenik baimentzen. Konstituzio anakronikoa eta militarizatua da, alderdi politikoen artean egina baina, hala ere, Brunete Dibisio Korazatuari, finantza oligarkiari eta garai horietako industria oligarkiari begira egindakoa. Zapatero Gobernuko presidentea zenean, legezko prozesu bat aurrera eramateko saiakera egin zen, Kataluniako Parlamentuan bozkatu zen, baiezkoak irabazi zuen eta Alderdi Popularrak, zuzenean, Konstituzio Auzitegira jo zuen eta behera bota zuten. Ez dago botereen banaketarik, gobernuak sasi baliabideak erabiltzen ditu hauteskundeetara aurkezteko eta botoak irabazteko. Botere Judiziala gobernuaren mende dago guztiz. Botereen banaketarik ez dagoen bitartean, ezin izango da ezertxo ere egin. Kataluniako prozesua agian hobeto egin zitekeen, baina une honetan ezin da bitartekaritzarik egin. Demokrazia legezkotasunaren aurka eta, aukera horren aurrean, beti demokraziaren alde. Kataluniako herriari eskertu nahi dizkio erakutsitako neurria eta jokabidea. Espainiako klase politikoan, gizonezkoei eta emakumezkoei bibotea

la apoya hasta Casado. No sólo se está hablando de Cataluña sino de cosas básicas como de democracia y esta muchas veces choca con la legalidad. Una urna no es un arma de destrucción masiva, es un instrumento al servicio de la sociedad para que pueda emitir su voto. Se tiene miedo a las urnas. En 1978 hubo unas elecciones para refrendar la Constitución Española, en Euskal Herria, el no y la abstención superaron al si. Se habla de las declaraciones de Venecia, pero ha habido conflictos que se han resuelto, Chequia-Eslovaquia, Servia-Montenegro y aunque no haya triunfado el proceso de independencia en Quebec o Escocia, se han revisado ese tipo de conflictos. La contrariedad es grande, el debate de la bilateralidad o la unilateralidad es un debate inocuo, imposible porque la Constitución del 78 no permite ningún tipo de desarrollo. Es una Constitución anacrónica y militarizada, se hace entre partidos políticos pero siempre mirando a la División Acorazada Brunete, a la oligarquía financiera y a la oligarquía industrial existente en esas épocas. Cuando Zapatero estaba como Presidente de Gobierno, se intentó hacer un proceso legal, se votó en el Parlamento Catalán, salió que sí y directamente el Partido Popular recurrió al Tribunal Constitucional y lo tumbaron. No existe la separación de poderes, el Ejecutivo está utilizando medios espúreos para concurrir a las elecciones y ganar votos. El poder Judicial es totalmente dependiente del Ejecutivo. Mientras no exista una separación de los poderes no se va a poder hacer nada. El proceso catalán igual se podría haber hecho mejor, pero en este momento ya no se puede mediar. Democracia contra legalidad y ante esta disyuntiva siempre al lado de la democracia. Quiere agradecer al pueblo catalán la mesura y el comportamiento que está teniendo. En la clase política española a los hombres y a las mujeres les está saliendo bigote, sus trajes son cada vez mas verdes y les está saliendo

irteten ari zaie, euren trajeak gero eta berdeagoak dira eta buruan gauzatxo arraroa irteten ari zaie. Prozesu eratzaile berri bati ekin behar zaio, Espainiaren zati izan nahi ez duten herriei aukera berak eskainiko dizkien prozesuari. Demokrazia berreskuratu beharra dago.

una cosita rara en la cabeza. Hay que hacer un nuevo proceso constituyente que permita a los pueblos que no quieran estar en España tener las mismas oportunidades. Hay que recuperar la democracia.

Behin mintzaldiak amaiturik,

Finalizadas las intervenciones.

Kataluniaren egoerari buruzko Aitorpen Instituzionala bozkatu da. Aldi berean, jaso da Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos alderdiko 5 zinegotziek uko egin diotela bozkatzeari.

Sometida a votación la Declaración Institucional sobre la situación de Cataluña se hace constar que los 5 concejales del Partido Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos se niegan a votar.

Udalbatzak, 14 botoren gehiengoarekin (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ eta EAJ/PNV),

El Pleno de la Corporación por mayoría de 14 votos a favor (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ y EAJ/PNV),

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

**Onespena ematea** Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ eta EAJ/PNV Udal Taldeek aurkeztutako Kataluniako egoera politikoari buruzko Aitorpen Instituzionalari. Aitorpen hori erabaki honen azalpen-zatian jaso da.

**Aprobar** la Declaración Institucional presentada por los Grupos Municipales Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ y EAJ/PNV relativa a la situación política de Cataluña y que consta en la parte expositiva del presente acuerdo.

----------

----------

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 13:10 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin, akta hau egin dut autonomia-erkidegoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 13:10 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente Acta en los folios números ______ al ______ del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el Alcalde. Certifico.